

HIZKUNTZA POLITIKA



Jean Michel Etchecolonea

EGOERA

Bi estatu handien hegemonia linguistikoaren mendean bizi da Euskal Herria. Frantsesez edota gaztelaniaz derrigorrez hitz egin behar dugu bizi ahal izateko, gainerako hizkuntza-komunitateek ezin dute hori bera egin. Ondorioz, euskarak menpeko estatus juridikoa du. Euskara ez da hizkuntza normalizatua izango bere lurralde guztietan hizkuntza ofiziala ez bada. Hori, bistan da, asimetria nabarmena da. Toleratu egiten da erdaldunen elebakartasuna eta galarazi euskaraz bizi ahal izatea. Natural hartzen da erdaldunak erdara

hutsen bizitzea eta, berriz, euskaldunak euskara hutsen bizitzea galarazi egiten da.

Horrenbestez, EH Bilduren ustez, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan hogeita hamar urteko hizkuntza politikaren ondoren, euskararen garapen osoa azkartu eta lortzeko politika eraginkorra, lehenetsuzkoa eta burujabea garatu eta gauzatu behar dugu. Horretarako, besteak beste, euskarari estatus egokia ematea ezinbestekoa da, hizkuntza normalizatuari dagokiona, alegia.

HELBURUAK

Euskaraz oso-osoan bizitzea ahalbidetuko duten baldintza politikoak, juridikoak, sozialak, ekonomikoak eta kulturalak lortu behar ditugu: euskararen erabilera handitzeko, ohiko hizkuntza bihurtzeko eta euskararen normalizazioa bideratzeko, euskara jakitea unibertsalizatzeko eta euskararen normalizazioan jauzi kualitatiboa emateko.

EH-Bilduren hizkuntza-politikarako proposamena gaur egungo errealitateetik abiatuko da. Halaber, egingarria, bideragarria eta pragmatikoa izango da. Hizkuntza politikaren oinarriak Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak proposatutako gutxienekoak izango dira:

- Burujabea, kanpoko esku-hartzerik gabekoa.
- Euskarari estatus juridiko egokia eskaintzen diona.
- Euskara erdigunera eraman eta baliabide nahikoak dituen: euskararen normalizazioaren zentralitatea aldarrikatu eta praktikara eramango duena.
- Elkarlana, lidergo partekatua eta zeharkakoa: euskararen normalizazioa norbanako eta eragile guztien bultzadatik, auzolan estutik, eta erakunde zein administrazio ezberdinen koordinaziotik etorriko da.
- Hizkuntza politikaren xedeak euskararen hiztun komunitatea izan behar du, berau burutzerakoan udalerrri euskaldunak, hiriburuak eta eskualde buruak hizkuntza politika gauzatzeko garrantzia berezia izango dute.

NEURRIAK

1

Hizkuntza politika izaera estrategikoz, Lehendakaritzan kokatu.

2

Hizkuntza politika burujabea, kanpoko esku-hartzerik gabekoa; euskaraz bizitzea ahalbidetuko duten baldintza politikoak, juridikoak, sozialak, ekonomikoak eta kulturalak jorratu, bost ardatz hauen arabera:

- Euskararen hiztun-komunitatea normalizatzeko adostasun soziala eta politikoa lortzea.
- Euskara Normalizaziorako Plan Estrategikoa diseinatzea eta abian jartzea gainerako eragile politiko eta sozialekin elkarlanean.
- Hizkuntzari buruzko legedia aztertzea eta eguneratzea, oro har, 1982ko legea berritzea. Euskararen erabilera normalizatzeko den legedi eta arkitektura juridikoa garatzea. Jaurlaritzak hizkuntza alorrean dauzkan eskumenak garatuz eta zabalduz.
- Hizkuntza politikari esleitutako aurrekontua, aurrekontu osoaren %2 ingurukoa izatea.
- Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko arduradun politiko eta eragile sozialekin elkarlana bultzatzea.

3

Euskarari estatus juridiko egokia eskaintzen diona; lan mundua, merkataritza eta berrikuntza-sistema euskalduntzea sustatuko dugu. Jarduera arautzailea garatuko dugu, enpresetan euskararen erabilera planak indarrean jartzeko.

- Administrazio publikoko kontratuetan hizkuntza-irizpideak zehaztu eta aplikatu.
- Enpresetan euskararen erabilera normalizatzeko ekimenak, euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza bihur dadin.
- Bikain ziurtagiria eta Bai Euskarari ziurtagiriak bateratu eta indartuko ditugu, besteak beste, administrazio publikoetako kontratazioetan.
- Kontsumitzailearen eta Erabiltzailearen Estatutu eta hari lotutako dekretua berraztertuko ditugu, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko.
- Alorrez alorreko agenteekin, hots, enpresa-elkarteekin, sindikatuarekin, gremio-elkarteekin, merkataritza ganbarekin eta bestelakoekin adostasunak bilatzea euskararen normalizazioaren bultzatzaile moduan joka dezaten.

4

Euskararen normalizazioaren zentralitatea aldarrikatu ez ezik praktikara eramaten duen politika. Herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzeko euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza bihur dadin aurrera pausuak egitea administrazio osoan.

- Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko administrazio publikoetako langileek euskaraz aritzeko gaitasuna eskatzea.
- Zerbitzu publikoa emateko administrazioarekin edo bere menpeko erakundeekin kontratua duten enpresek administrazioaren maila berean bermatu beharko dituzte herritarren hizkuntza-eskubideak.
- Eusko Jaurlaritzako sail guztiek eta bere erakundeek garatzen dituzten kontratu, proiektu eta ekimen guztiek hizkuntza-irizpideak txertatuta izan beharko dituzte.
- Beharrezko urratsak eta lege-garapenak egingo dira arduradun politiko gorenek ere hizkuntza ofizialetan jarduteko gai direla bermatzeko.
- Diru-laguntza deialdietan hizkuntza irizpideak txertatuko dira.
- Administrazioak 16 urtetik beherakoentzako jardueretan eta harremanetan euskarazko erabilera lehenestea.

Estatuko administrazioak euskaldunon eskubideak errespeta ditzan ekimenak bideratzea.

Administrazioak masa-hedabideetan herritarrak informatzeko egiten dituen iragarki eta antzekoetan euskarazko komunikabideak lehenetsiko dira eta elebidunen artean % 30a baino gehiago euskaraz argitaratzea.

Euskaldun pasiboak motibatu, euskararen erabilera konprometitzeko

5

Elkarlana, auzolana, lidergo partekatua eta zehar-lerrotasuna. Hizkuntza politikaren lehentasuna. Euskararen hiztun elkarteak. Udalerrri euskaldunak, hiriburuak eta eskualde buruak. Udalerrri eta espazio sozial euskaldunak bultzatzea eta indartzea.

Euskararen arnaguneak (euskaldunen dentsitate indizea %70 edo handiago duten herriak) babestea, indartzea eta bideragarriak egitea.

Arnaguneak babesteko legeak eta araudiak.

UEMA babestu, indartu eta zabaldu.

6

Hezkuntza-sistemak bermatu behar du derrigorrezko irakaskuntza amaitzean euskal herritarrek bi hizkuntza ofizialak nahikotasunez menderatzea. Hizkuntza murgiltze-eredu bakarra.

Lehen Hezkuntzan murgiltze-eredua ikastetxe guztietan.

Lanbide Heziketan, etengabeko eta enplegurako trebakuntzaren alorrean, urratsak euskarazko eskaintza bermatzea.

DBHn eta Batxilergoan euskarazko eskaintza nahikoa lortzea.

Unibertsitate mailako titulazio-mapa, euskaraz ikas daitezkeenak.

7

Helduen euskalduntze-alfabetatzea behar-beharrezkoa da euskararen ezagutza unibertsalizatzeko.

Euskara ikastea doan izango da asistentzia eta aprobetxamenduaren arabera.

Sektoreko agenteen jarduna finantzatzeko nahikoa baliabide ekonomiko jarriko dira.

Sektoreko agente guztien arteko osagarritasuna eta elkarlana bilatuko dira (HABE, udal euskaltegiak, euskaltegi homologatuak eta Hizkuntza Eskola Ofiziala).

8

Euskararen hiztun komunitatea hedabide-sistema zedarritu, zabaldu eta sendotu.

Euskarazko komunikabideen jasangarritasun ekonomikoa eta egonkortasuna bermatzeko urte anitzeko hitzarmenak bultzatuko ditugu.

Euskal hedabideen behatokia sortzea. Herri-administrazioen eta sektorearen arteko lankidetzaren egonkorra sustatzea.

Euskarazko hedabideen (ETB1, Euskadi Irratia eta beste) autonomia eta aurrekontu nahikoa eta propioa izatea. EITBko telebista kate eta irrati guztietan euskararen presentzia bermatu eta erabilera bultzatzea.

EITB ren eredu berraztertu eta hizkuntz normalizaziorako tresna bihurtzea.

EITBren lan-hizkuntza euskara izateko urratsak egingo dira eta, ondorioz, EITBko langile guztiek euskaraz aritzeko gaitasuna izango dute.

EITBko telebista kate eta irrati guztietan euskararen presentzia bermatu eta erabilera bultzatuko da. Saihestuko da euskal hiztunek adierazpenak bietan, euskaraz eta erdaraz, egin behar izatea.

EITBko euskarazko kateek programazio normalizatua eta ikus-entzuleen espektro osoa hartuko duena izan behar dute: seriek, eztabaidak, zinea, kirola, entretenimendua, e.a.

Euskarazko bikoizketa ere bultzatuko da sorkuntza propioko eskaintza osatzeko.

Hizkuntzaren kalitatea. EITBko emanaldien euskarazko eta espainierazko emanaldiek kalitate linguistiko duina izan dezaten bermatzeko baliabide nahikoak jarriko dira.

Euskararen komunikazio-esparru sendoa eta iraunkorra lortzeko elkarlana, koordinazioa, eduki-trukea eta zabalkunde-bide konpartituak sortuko dira gainerako euskarazko hedabide publiko eta ez-publikoekin.

Euskararen eta euskal hiztunen garapenerako eraginkorra izango den euskarazko irrati eta telebistaren esparru komunikatiboaren egituraketaren azterketa eta diseinua abiatuko da eragile guztien artean.

Euskarazko komunikabideen jasangarritasun ekonomikoa eta egonkortasuna bermatzeko urte anitzeko hitzarmenak bultzatuko dira.

Euskal hedabideen behatokia sortzea.

Herri-administrazioen eta sektorearen arteko lankidetzaren sustatzea.

Euskarazko eskualde mailako komunikabide multimedialak sortzea bultzatuko dugu.

Ikus-entzunezkoen alorrean, emisio-lizentzia guztiek euskarazko eskaintza duin bati lotuta joan behar dute, gutxienez barrutiko elebidun indizearen arabera. Barruti bakoitzean euskara hutsezko lizentzia bat egongo da.

Euskarazko hedabideak kontsumitzeko kanpainak egingo dira.

Eskatuko dugu Estatuko komunikabide publikoek euskararen legea bete dezaten eta euskarazko eskaintza duinak izan ditzaten.



Euskarazko kultur sorkuntza, kontsumoa eta bere nazioarteratzea sustatuko ditugu euskarazko kultur industria indartsua eta jasangarria lortzeko helburuarekin.

Zinema-proiektzioan euskaraz eskainitako filmen kuota jarriko dugu.

Euskarazko sormen literarioa nahiz zientifikoa eta liburugintza, ikus-entzunezko materialak eta bestelako kultur adierazpenak lehenetsiko ditugu eta neurri egokiekin sustatu.

Ikus-entzunezkoen alorrean euskarazko eskaintza handitzeko Euskarazko Bikoizketa Agentzia sortuko dugu.

Sortzaile euskaldunen guneak indartu eta baliabidea nahikoa eduki dezaten sustatuko dugu.



Euskara eta euskarazko kultura zabalduko dugu.

Etxepare Institutua berregituratu eta indartuko dugu.

Euskararen irakaskuntza, ikasketa eta erabilera mundu osoan sustatuko dugu.

Euskarazko kulturaren sorkuntza, espresio, euskarri eta adierazpideak hedatzen eta zabaltzen lagunduko dugu.

Euskarari eta euskarazko kulturari buruzko ikerketa sustatuko dugu, bereziki unibertsitate eta goi-mailako ikerketarako erakundeetan.

11

Aisialdia eta kirolaren euskalduntzea bultzatuko ditugu.

Kirol-jarduna euskalduntzeko federazioekin eta kirol-kluberkin elkarlanean arituko gara, kirol-jardueraren alderdi guztiak euskalduntzeko lehiaketatik teknikarien prestakuntzara.

Aisialdirako kontsumo-produktuen euskarazko eskaintza zabaltzea bultzatuko dugu, bereziki gazteentzat direnak eta IKT alorrekoak.

12

Euskarazko Informazio eta Komunikazio Teknologien tresnak eta aplikazioen ekoizpena eta kontsumoa bultzatuko ditugu.

Bermatuko dugu kontsumo orokorreko softwarea eta enpresa-aplikazio ohizkoenak euskaraz egon daitezen.

Bermatuko dugu euskaraz izan ditzan hizkuntzen teknologiararen oinarriko tresnak eta baliabideak. Bide horretan euskaraz Ingelesak adinako baliabideak eduki ditzan bultzatuko dugu.

Aisialdirako euskarazko IKT produktuak lehentasunez bultzatuko ditugu.

.eus domeinua hedatzen lagunduko dugu.

Internet euskarazko edukiz hornitzea sustatuko dugu.

13

Unibertsitatean eta ikerketa-alorrean euskara sustatuko dugu.

Euskara unibertsitate mailan indartuko dugu, bereziki Euskal Herriko Unibertsitatean zeinak irakaskuntza-eskaintza osoa euskaraz eskainiko duen.

Udako Euskal Unibertsitatearekin hitzarmena zabaldu eta sendotuko dugu.

Goi-mailako ikerketa, publikazioa eta dibulgazioa euskaraz izan dadin urratsak emango ditugu.

Zientzia eta Teknologia Planaren barruan txertatuko ditugu euskararen garapenerako osoa ahalbidetuko duten ikerketa-ildoak eta horiei dagozkien ikerketa-zentro edo unitateak sortuko ditugu:

- Hizkuntza-teknologiak.
- Euskararen eta hizkuntza gutxiagotuen normalizazio-prozesuak.

14

Gurasoak euskaraz aritzera bultzatzeko eta familia euskalduntzeko estrategiak eta politikak landuko ditugu: hizkuntzaren transmisioa, euskararekiko jarrera proaktiboak, etxeko hizkuntza-giroa, e.a.

15

Migratzaileen kulturak eta hizkuntzak aintzat hartuz euskarara eta euskal kulturara hurbiltzea sustatuko dugu.

16

Euskara mundu modernora egokitzeko baliabideak jarriko ditugu.

Euskaltzaindiak lana egoki eta eraginkortasunez egiteko behar dituen baliabide ekonomikoak eskura jarriko dizkiogu.

Euskararen Aholku Batzordearen zeregina eta helburuak berraztertuko ditugu.

Euskarazko eduki entziklopediko orokorrak eta espezializatuak sortzeko eta hedatzeko proiektuak bultzatuko ditugu.

17

Koordinazioa, elkarlana eta osagarritasuna bilatuko ditugu euskararen gizarte-erakundeekin eta gainerako instituzio eta erakunde publikoekin.

Eusko Jaurlaritza euskararen esparruko eragile sozialekin elkarlanean arituko da.

Nafarroako administrazioarekin, Ipar Euskal Herriko HELEP erakunde berriarekin eta Euskararen Erakunde Publikoarekin elkarlanerako espazioak bereziki bultzako dira, hizkuntza-politika koordinatua garatzeko, eremu bakoitzeko egoera soziolinguistikoa kontutan izanda.

18

Hizkuntza Normalizazioaren Koordinaziorako Jarraipen Batzordea sortuko dugu Eusko Jaurlaritzaren barruan, eta bere menpeko sozietate eta erakundeetan, hizkuntza politika egokiak koordinatzeko eta bultzatzeko.

19

Euskararen gizarte-erakundeekin, urtez-urteko diru-laguntzetatik harago urte anitzeko hitzarmenak egitea bultzatuko da, erakunde horien bideragarritasuna bermatzeko helburuarekin.